**IRURTZUNGO UDALA (NAFARROA)**
**Foruen Plaza, z/g**
**31860 Irurtzun**

AYUNTAMIENTO DE IRURTZUN (NAVARRA)
Plaza de los Fueros, s/n
31860 (Irurtzun)

## IRURTZUNGO UDALBATZAREN OSOKO BILKURAREN AKTA
## *ACTA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN DE IRURTZUN*

Irurtzunen, bi mila eta hogeita biko maiatzaren 10ean, arratsaldeko 19:30ak direnean, aldez aurretik legeak agintzen duen moduan deituta, Irurtzungo udaletxeko osoko bilkuren aretoan udalbatza elkartu da ez - ohiko bilkura egitearren, Aitor Larraza Carrera jauna alkate - lehendakaria buru dela. Bertan izan dira Udalbatzako zinegotzi hauek:

*En Irurtzun, siendo las 19:30 horas del día 10 de mayo de dos mil veintidós se reúne en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial la Corporación del Ayuntamiento de Irurtzun al objeto de celebrar sesión extraordinaria, previamente convocada en forma legal, bajo la Presidencia del Alcalde - Presidente, Don Aitor Larraza Carrera, con la asistencia los Concejales y las Concejalas de la Corporación que se enumeran a continuación:*

| | |
|---|---|
| Ana Balda San Juan andrea. | *Doña Ana Balda San Juan.* |
| Ana Santander Lizaso andrea. | *Doña Ana Santander Lizaso.* |
| Antonio Ollakarizketa Elizondo jauna. | *Don Antonio Ollakarizketa Elizondo.* |
| Eduardo Murugarren Frances jauna. | *Don Eduardo Murugarren Francés* |
| Joseba Royo García jauna. | *Don Joseba Royo García.* |
| Naiara Gartzia Royo andrea. | *Doña Naiara Gartzia Royo.* |
| Luis Enrique de la Calle Moreno jauna. | *Don Luis Enrique de la Calle Moreno.* |

Ezin etorria adierazi dute Agurtzane Garijo Peralta andreak, Domingo Goñi Sarasola jaunak eta Enrique Tenorio Ruiz jaunak.

*Excusan su asistencia Doña Agurtzane Garijo Peralta, Don Domingo Goñi Sarasola y Don Enrique Tenorio Ruiz.*

Idazkari lanetan, udalbatzarena, Eguzkiñe Aiesa Andres andrea.

*Asistida la Corporación por mí, la Secretaria Municipal, Doña Eguzkiñe Aiesa Andres.*

Saioari 19'30ean eman zaio hasiera.

*Se da inicio a la sesión siendo las 19'30 horas.*

**1.- 2022ko apirilaren 5ean ospatutako Osoko Bilkuraren aktaren onarpena, hala badagokio.**

2022ko apirilaren 5eko osoko bilkuraren akta eztabaidatu eta bozkatu da, eta aho batez onartu da.

***1.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión plenaria del día 5 de abril de 2022.***

*Se procede a someter a debate y votación el acta de la sesión plenaria del día 5 de abril de 2022, que queda aprobada por unanimidad.*

**2.- Alkatetzaren ebazpenen berri ematea, 2022/52etik – 2022/70 ebazpenera.**

Alkatetzaren ebazpenei buruz hitz egiteko txanda ireki da. Ebazpen horien zerrenda bilkurako gainerako dokumentazioarekin batera bidali zen, eta, hautetsi batek ere ez duenez hitza hartu, Udalbatza 2022/52 eta 2022/70 arteko ebazpenen jakitun geratu da.

***2.- Dar cuenta de las resoluciones de alcaldía, desde la 52/2022 hasta la 70/2022.***

*Se abre el turno de palabras sobre las resoluciones de alcaldía cuya relación se envió junto al resto de documentación de la sesión, y, no tomando ninguna persona electa presente la palabra, la Corporación se da por enterada de las resoluciones de alcaldía 52/2022 a 70/2022.*

**3.- Maiatzaren 4ko alkatetzaren 2022/70 ebazpenaren berrespena, hala badagokio. Honen bidez, 2022. Denboraldirako Itxesia udal igerilekuetako taberna errentan emateko baldintzen plegu arautzailea onartu egiten da.**

Alkateak puntuaren sarrera egin du, nabarmenduz Itxesia udal igerilekuetako taberna 2022ko udako kanpaina honetarako alokatzeko baldintza - agiri arautzailearen aldaketa bakarra eskaintza eragile batek egiten duenean puntuatzeko aukera izatea dela.

Gaia eztabaidagai jarrita hitzik hartu ez denez, zuzenean bozkatu da eta **Udalbatzak, bertaratutako guztien aho batez, honako hau erabaki du:**

BAKARRA.- Maiatzaren 4ko alkatetzaren 2022/70 ebazpena berrestea. Honen bidez, 2022.

***3.- Ratificación, si procede, de la resolución de Alcaldía 70/2022, de 4 de mayo, por la que se aprueba el pliego regulador para el arrendamiento del Bar de las piscinas municipales Itxesia en la campaña de 2022.***

*El Alcalde introduce el punto, destacando que la única modificación del pliego regulador para el arrendamiento del bar de las Piscinas Municipales Itxesia para esta campaña estival de 2022 consiste en la posibilidad de puntuar en las ocasiones en las que la oferta sea efectuada por una asociación.*

*Al no tomarse palabras sometido el asunto a debate, se procede directamente a votación y **el Pleno de la Corporación, por unanimidad de las personas presentes, acuerda:***

*ÚNICO.- Ratificar la resolución de alcaldía 70/2022, de 4 de mayo, por la que se aprueba el pliego regulador*

Denboraldirako Itxesia Udal Igerilekuetako taberna errentan emateko baldintzen plegua onartzen da.

*para el arrendamiento del Bar de las piscinas municipales Itxesia en la campaña de 2022.*

**4.- Abenduaren 28ko 20/2021 Legeak eta aplikatu beharreko gainerako araudiak xedatutakoaren arabera Egonkortze Prozesua deiturikoan atera beharreko lanpostuen onespena, hala badagokio.**

***4.- Aprobación, si procede, de los puestos de trabajo a sacar en el llamado Proceso de Estabilización, marcado por la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, y demás normativa aplicable.***

Alkateak gogorarazi du Estatu Espainolak promulgatutako abenduaren 28ko 20/2021 legea, egonkortzearen legea deitutakoa, dela medio, administrazio guztiek eta, beraz, baita Irurtzungo Udalak ere, 2022ko ekainaren 1a baino lehen onartu eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar dituztela aipatutako legean aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten lanpostuen lan - eskaintza publikoak.

*El Alcalde recuerda que, debido a la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, llamada de Estabilización, promulgada por el Estado Español, todas las administraciones y, por tanto, también el Ayuntamiento de Irurtzun deben sacar y publicar en el Boletín Oficial de Navarra antes del 1 de junio de 2022 las Ofertas Públicas de Empleo de las plazas que cumplan los requisitos previstos en la mencionada ley.*

Udal honen kasuan, honakoak dira lan - eskaintza publikoan agertu beharreko plazak, denak abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. xedapen gehigarrian aurreikusitako merezimendu - lehiaketa bidez bete beharrekoak:

*En el caso de este Ayuntamiento, las plazas a incluir en la oferta de empleo público son las siguientes, todas ellas a cubrir mediante concurso de méritos previsto en la Disposición Adicional 6ª de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre:*

- Instalazio eta eraikin publikoak eta/edo udal - eraikinak garbitzeko 6 plaza, E maila, osagarriak: mailaren %15, lan - kontratu finkoa, lanaldi partziala (%60,5), A2 hizkuntza - eskakizuna.

*- 6 plazas de limpieza de instalaciones y edificios públicos y/o municipales, nivel E, complementos: 15% de nivel, laboral fijo, jornada parcial (62'5%), perfil lingüístico A2.*

- Instalazio eta eraikin publikoak eta/edo udal - eraikinak garbitzeko plaza 1, E maila, %15eko maila osagarria, langile finkoa, lanaldi osoa, A2 hizkuntza – eskakizuna.

*- 1 plaza de limpieza de instalaciones y edificios públicos y/o municipales, nivel E, 15% de complemento de nivel, laboral fijo, jornada completa, perfil lingüístico A2.*

- Musika Eskolako 4 irakasle - plaza, B maila, %12ko lanpostu - osagarria, lan - kontratudun langile finkoa, lanaldi partziala, C1 hizkuntza - eskakizuna.

*- 4 plazas de profesor/a de la Escuela de Música, nivel B, 12% complemento de puesto de trabajo, laboral fijo, jornada parcial, perfil lingüístico C1.*

- Gaztetxoko monitoreen 2 plaza, C maila, lan –

*- 2 plazas de monitores/as de Gaztetxoko, nivel C,*

kontratudun langile finkoak, B2 hizkuntza – eskakizuna.

*laboral fijo, perfil lingüístico B2.*

Alkateak azaldu du zinegotzien eskura jarritako dokumentazioan Musika Eskolako sei irakasle - plaza agertzen zirela. Alta, akatsa antzeman da, Irurtzungo Musika Eskolako irakasleei aplikatzeko Hitzarmen Kolektibo bat baitago. Horren arabera, eszedentzia hartzen duten langile guztiei bi urtez gordeko zaie lanpostua, eta, beraz, hautetsiei bidalitako Enplegu Publikoaren Eskaintzatik bi plaza kendu behar dira, klarinete - irakasleari eta bateria - irakasleari dagozkienak, hain zuzen, biak ala biak eszedentzia – egoeran baitaude, beste ikasturte batean lanpostua gordeta izateko eskubidea dutelarik.

*Explica el Alcalde que en la documentación puesta a disposición de los y las concejalas eran seis las plazas de profesor/a de la Escuela de Música que constaban. Sin embargo, se ha advertido el error, ya que existen un Convenio Colectivo de aplicación al profesorado de la Escuela de Música de Irurtzun, según el cual a todas las personas trabajadoras a las que se les conceda excedencia se les reservará la plaza durante dos años, por lo que deben ser retiradas de la Oferta Pública de Empleo dos plazas, relativas a la profesora de clarinete y al profesor de batería, ambos en situación de excedencia con reserva de plaza durante otro curso escolar más.*

Halaber, jakinarazten du Enplegu Publikoaren Eskaintzaren proposamen hau udaleko langileen artean dauden lantaldeekin kontrastatu dela, egoera azaldu dela eta horiekin proposamena adostu dela.

*Hace saber, asimismo, que esta propuesta de Oferta de Empleo Público ha sido contrastada con los diferentes equipos de trabajo existentes entre el personal municipal, habiendo sido explicada la situación y acordada con los mismos la propuesta.*

Hitzen txanda irekita, Enrique de la Calle jaunak galdetu du ea ez dagoen aldaketa gehiagorik Batzordean jorratutakoaren aldean, eta alkateak ezetz erantzun dio, Musika Eskolako irakasleen kontratazioen xehetasunak ezagutzeko egindako artxibo - lan mardulaz harago, gainerako taldeetan baino zalantza gehiago egon zitezkeelako haiekin. Hori dela eta, plantilla organikoan jasotako Musika Eskolako hamaika irakasle - plazetatik lau baino ez dira ateratzen Enplegu Publikoaren Eskaintzara.

*Abierto el turno de palabras, don Enrique de la Calle pregunta si no existe más cambio con respecto a lo tratado en Comisión, a lo que el Alcalde responde que no, más allá del arduo trabajo archivístico realizado para conocer los pormenores de las contrataciones del profesorado de la Escuela de Música, con las que podía haber alguna duda más que en el resto de equipos. Debido a ello, únicamente salen a Oferta de Empleo Público cuatro de las once plazas de profesor/a de la Escuela de Música recogidas en la plantilla orgánica.*

Gaia bozkatu ondoren, **Udalbatzak honako erabaki hauek hartu ditu bertaratutakoen aho batez:**

*Sometido el asunto a votación, **la Corporación, por unanimidad de las personas presentes, adopta los siguientes acuerdos:***

LEHENENGOA.- 2022rako Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzea, enplegu publikoan behin - behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen babesean.

BIGARRENA.- Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**5.- Irurtzungo udalerriko gizarteratzeko eta/edo larrialdiko prozesuei laguntzeko laguntzak kudeatzeko ordenantza arautzailearen hasierako onarpena, hala badagokio.**

Alkateak azaldu du Udalak 2020ko koronabirusaren pandemiaren hasieratik onartu dituela Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak kudeatzen dituen larrialdi laguntzak, osasun - egoeraren eraginez sortutako beharrei estuki erantzuteko sortutako araudian oinarrituta.

Gaur egun, itxuraz normaltasun sanitarioa bizi denez, zeinetan pandemiaren beharrak eta ondorioak aldatu baitiren, eta larrialdietarako laguntzei erantzuteko aurrekontu - partida badagoenez, laguntza horiek arautuko dituen araudi berri bat egiteko beharra ikusi da.

Gaia eztabaidagai jarrita, hitzik hartu gabe, bozkatu egin da, eta **emaitza aho batez erabaki da:**

LEHENENGOA.- Irurtzungo udalerriko gizarteratzeko eta/edo larrialdiko prozesuei laguntzeko laguntzak kudeatzeko ordenantza arautzailea hasiera batez onestea.

BIGARRENA.- Honako akordioa NAOn argitaratzea eta argitaratzen den dataren biharamunetik hasita hilabeteko jendaurreko epea irekitzea. Alegaziorik

*PRIMERO.- Aprobar la Oferta Pública de Empleo para el año 2022 al amparo de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público.*

*SEGUNDO.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra.*

***5.- Aprobación inicial de la Ordenanza reguladora para la gestión de ayudas de apoyo a procesos de inclusión social y/o emergencia del municipio de Irurtzun, si procede.***

*El Alcalde expone que el Ayuntamiento lleva, desde el inicio de la pandemia por coronavirus de 2020, aprobando unas ayudas de emergencia que las gestiona el Servicio Social de Base, en base a una normativa creada para responder estrechamente a las necesidades surgidas de la situación sanitaria.*

*Actualmente, ante la aparente normalidad sanitaria en la que han variado las necesidades y consecuencias de la pandemia, y existiendo una partida presupuestaria con la que responder a las ayudas de emergencia, se ha visto la necesidad de elaborar una nueva normativa que las regule.*

*Sometido el asunto a debate sin que se tomen palabras, se procede a votar, siendo el resultado que,* ***por unanimidad de las presentes, se acuerda:***

*PRIMERO.- Aprobar inicialmente la Ordenanza reguladora para la gestión de ayudas de apoyo a procesos de inclusión social y/o emergencia del municipio de Irurtzun.*

*SEGUNDO.- Publicar este acuerdo en el BON y abrir un periodo de exposición pública de un mes, desde el día siguiente a su publicación. En caso de que no se*

egongo ez balitz, araudia behin betikotasunez onartutzat eman eta bere testu osoa NAOn argitaratuko litzateke.

*presenten alegaciones, la ordenanza se entenderá aprobada definitivamente y se procederá a su publicación íntegra en el BON.*

**6.- Familia ugariei lurralde - ekarpenaren gaineko zergaren hobariak ematea arautzen duen ordenantza fiskalaren hasierako onespena, hala badagokio.**

***6.- Aprobación inicial de la Ordenanza Fiscal reguladora de las bonificaciones a familias numerosas del impuesto de contribución territorial, si procede.***

Alkateak azaldu du ezen, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzearen ondorioz, toki entitateek lurralde - kontribuzioaren zergaren kuotaren %90erainoko hobaria arautu dezaketela, baldin eta etxebizitza familia ugariaren, guraso bakarreko familiaren edo guraso bakarreko egoeran dagoen familiaren titular diren subjektu pasiboen ohiko bizilekua bada.

*El Alcalde explica que, a raíz de la modificación de la Ley Foral 2/1995, de 10 de marzo, de Haciendas Locales de Navarra, las entidades locales pueden regular una bonificación de hasta el 90% de la cuota del impuesto de contribución territorial cuando se trate de la vivienda que constituya el domicilio habitual de los sujetos pasivos que ostenten la condición de titulares de familia numerosa o de familia monoparental o en situación de monoparentalidad.*

Irurtzungo gobernu - taldeak, ordenantza fiskal honen bidez, hobari horren lehen hurbilketa bat egiten du, ikusteko nola eragiten dien udaleko diru - sarrerei eta Irurtzungo gizarte – errealitateari. Hobari sistema ondorengo ordenantza fiskaletan alda daiteke, hala badagokio.

*El equipo de gobierno de Irurtzun hace mediante la presente ordenanza fiscal una primera aproximación a esta bonificación, para ver cómo afecta la misma a los ingresos municipales y a la realidad social de Irurtzun, que puede ser modificada en posteriores ordenanzas fiscales, en su caso.*

Adierazi du bozketara ekartzen den ordenantza fiskal honetan per capita errentaren tarte txikiak jasotzen direla, zuhurtasun - printzipioaren arabera, hala nola:

*- 3.350 euro edo gutxiago: %70eko hobaria.*

*- 3.350,01 - 5.500 euro: %60ko hobaria.*

*- 5.500,01 - 6.650 euro: %50eko hobaria.*

*- 6.650,01 - 7.980 euro: %40ko hobaria.*

*- 7.980,01 - 9.300 euro: %30eko hobaria.*

*- 9.300,01 - 10.700 euro: %20ko hobaria.*

*Apunta que en esta ordenanza fiscal que se trae a votación se recogen tramos de renta per cápita bajos, por el principio de prudencia, tales como:*

*- 3.350 euros o menos: Bonificación del 70%.*

*- 3.350,01 - 5.500 euros: Bonificación del 60%.*

*- 5.500,01 - 6.650 euros: Bonificación del 50%.*

*- 6.650,01 - 7.980 euros: Bonificación del 40%.*

*- 7.980,01 - 9.300 euros: Bonificación del 30%.*

*- 9.300,01 - 10.700 euros: Bonificación del 20%.*

*- 10.700,01 - 12.400 euro: %10eko hobaria.*

*- 10.700,01 - 12.400 euros: Bonificación del 10%.*

Enrique de la Calle jaunak hartu du hitza, eta galdetu du ea Udalak zer egin dezakeen ordenantza fiskal honetan onartutako hobariak udal diru - kutxetarako asumiezinak direla egiaztatzen bada.

*Toma la palabra don Enrique de la Calle, preguntando cómo puede recular el Ayuntamiento en caso de constatar que las bonificaciones aprobadas en esta ordenanza fiscal resulten inasumibles para las arcas municipales.*

Alkatetzak erantzun du udal - zerbitzuekin azterketa bat egin dela, eta ez dela ohikoa errenta horiek dituzten familiak etxebizitzen jabeak izatea, eta hobari - baldintzak betetzen dituzten familiak ere ez direla ugariak. Beraz, proposamen honekin kontu handiegiz jokatu da, akaso.

*Alcaldía responde que se ha hecho un estudio con los servicios municipales y no es habitual el caso de que las familias con estas rentas sean propietarias, ni tampoco abundan las familias que cumplen los requisitos de bonificación, por lo que con esta propuesta se peca más de precaución.*

Gainera, alkateak adierazi du zergaren ehunekoa Nafarroako Gobernuak ezarri duen gutxienekora igo dela, hau da, 0,25era.

*Además, el Alcalde comenta que se ha subido el porcentaje del impuesto al mínimo que recientemente ha fijado Gobierno de Navarra, que es del 0,25.*

Gaia bozkagai jarrita, **Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:**

*Sometido el asunto a votación, **el Pleno, por unanimidad, acuerda:***

LEHENENGOA.- Familia ugariei lurralde - ekarpenaren gaineko zergaren hobariak ematea arautzen duen ordenantza fiskala hasiera batez onestea.

*PRIMERO.- Aprobar inicialmente la Ordenanza Fiscal reguladora de las bonificaciones a familias numerosas del impuesto de contribución territorial.*

BIGARRENA.- Honako akordioa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta argitaratzen den dataren biharamunetik hasita hilabeteko jendaurreko epea irekitzea. Alegaziorik egongo ez balitz, araudia behin betikotasunez onartutzat eman eta bere testu osoa NAOn argitaratuko litzateke.

*SEGUNDO.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra y abrir un periodo de exposición pública de un mes, desde el día siguiente a su publicación. En caso de que no se presenten alegaciones, la ordenanza se entenderá aprobada definitivamente y se procederá a su publicación íntegra en el BON.*

**7.- 2022. urteko kirol erakundeentzako laguntzen onespena eta ordainagindua, hala badagokio.**

***7.- Aprobación y orden de pago de las ayudas a entidades deportivas de 2022, si procede.***

Alkateak adierazi du, beste ekitaldi batzuetan kirol - klubei ematen zaizkien laguntzak birritan ordaintzen direla, baina ekitaldi honetan laguntza horiek bere

*El Alcalde indica que, a diferencia de otros ejercicios, en los que se abonan las ayudas a los clubes deportivos en dos veces, este ejercicio se propone*

osotasunean onartu eta ordaintzea proposatzen dela, Udal Kontu - hartzailetzari lana errazteko eta kirol - erakundeei urteko kudeaketaren bidez laguntzeko.

*aprobar y abonar estas ayudas en su totalidad, para facilitar su ejecución a la Intervención Municipal y para ayudar a las entidades deportivas con la gestión del año.*

Beste ekitaldi batzuetan bezala, dirulaguntza honela ematea proposatzen da:

*La propuesta es subvencionar, como en otros ejercicios, de la siguiente manera:*

- Irurtzungo Pilota Eskola: 5.370 euro. Kopuru hau murriztu egin da beste ekitaldi batzuekin alderatuta, zeintzuetan 6.000 euroko zenbatekoa onartu baitzaien; aurten kontu - hartzailetzako akats baten ondorioz aurreko ordainketa batean soberan ordaindu zitzaion, eta, beraz, oraingoan, soberakina konpentsatu da.
- Club Xota: 7.600 euro.
- Saskibaloi kluba: 1.500 euro.

*- Escuela de Pelota de Irurtzun: 5.370 euros. Esta cantidad se ve mermada con respecto a otros ejercicios, en los que se les aprueba la cantidad de 6.000euros, debido a un error de Intervención por el que en un anterior pago se le abonó de más, por lo que en esta ocasión se compensa el excedente.*

*- Club Xota: 7.600 euros.*

*- Club de Baloncesto: 1.500 euros.*

Ezer esan gabe, **gaia bozkatu egin da eta, bertaratutakoek aho batez hartu dituzte honako erabaki hauek:**

*Sin haber tomas de palabras, se somete el asunto a votación y,* ***por unanimidad de las presentes, se adoptan los siguientes acuerdos:***

LEHENENGOA.- Alkatearen azalpenean zehaztutako kirol-erakundeei diru - laguntzen urteko ekarpena ematea eta ordaintzea.

*PRIMERO.- Conceder y abonar la aportación anual de las subvenciones a las entidades deportivas detalladas en la exposición del Alcalde.*

BIGARRENA.- Akordio hau interesdunei jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

*SEGUNDO.- Notificar este acuerdo a las personas interesadas, para su conocimiento y efectos.*

HIRUGARRENA.- Udal kontuhartzailetzari erabaki hauen berri ematea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

*TERCERO.- Dar traslado de estos acuerdos a la Intervención Municipal para su conocimiento y efectos.*

**8.- 2022. urteko kirol jardueretarako laguntzen onespena eta ordainagindua, hala badagokio.**

***8.- Aprobación y orden de pago de las ayudas a actividades deportivas del año 2022, si procede.***

Alkateak adierazi du puntu honetan aurten egindako bi kirol - jarduerari laguntza eman nahi zaiela. Honakoak dira:

*El Alcalde indica que en este punto se pretende ayudar a dos actividades deportivas llevadas a cabo este año, que son:*

- Iratxo mendi taldeak egindakoak: 1.250 euro.

- La Peluso lasterketa: 1.500 euro.

Ez dago hitzartzerik eta Udalbatzak, aho batez, honakoa erabaki du:

LEHENENGOA.- Deskribatutako kirol – jarduerei laguntzak ematea eta ordaintzea.

BIGARRENA.- Akordio hauek interesdunei jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

HIRUGARRENA.- Udal kontuhartzailetzari erabaki hauen berri ematea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

- *Las llevadas a cabo por el club de montaña Iratxo: 1.250 euros.*

- *Carrera La Peluso: 1.500 euros.*

*No hay toma de palabras y **el Pleno, por unanimidad**, acuerda:*

*PRIMERO.- Conceder y abonar las ayudas a las actividades deportivas descritas.*

*SEGUNDO.- Notificar estos acuerdos a las personas interesadas, para su conocimiento y efectos.*

*TERCERO.- Dar traslado de estos acuerdos a la Intervención Municipal para su conocimiento y efectos.*

**9.- Nitxoa betiko uztea, hala badagokio.**

Alkateak esan du Teodora Gomez Bello andreak betiko nitxoaren eskaera egin duela.

Hitzik hartu gabe, **Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:**

LEHENENGOA.- C eremuko H kaleko 130. nitxoa Teodora Gomez Bello andreari betiko uztea.

BIGARRENA.- Honako akordioa eskatzaileari jakinaraztea.

HIRUGARRENA.- Eskatzaileari jakinaraztea lagapen horrengatik ordaindu beharreko tasa 749,00 eurokoa dela. Ordaintzeko epea hilabetekoa dela, erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

***9.- Concesión de nicho a perpetuidad, si procede.***

*El Alcalde dice que se ha recibido solicitud de nicho a perpetuidad por parte de Doña Teodora Gomez Bello.*

*Sin haber toma de palabras, **el Pleno, por unanimidad, acuerda:***

*PRIMERO.- Ceder a perpetuidad el nicho Nº 130 de la calle H de la zona C a Doña Teodora Gomez Bello.*

*SEGUNDO.- Notificar este acuerdo a la persona solicitante.*

*TERCERO.- Notificar a la solicitante que la tasa a abonar por esta cesión asciende a 749,00 euros a abonar en el plazo de un mes, a contar desde el día siguiente al de la notificación de este acuerdo.*

**10.- Hala badagokio, 0-3 hezkuntza – zikloari buruzko mozioaren onartzea, EH Bilduko udal**

***10.- Si procede, aprobación de la moción acerca del ciclo educativo 0-3, a propuesta del Grupo***

**taldearen proposamenez.**

Alkateak adierazi du 0-3 plataformak prestatutako mozioa dela, zikloaren egoera islatuz. Hala, plataformak finantzaketa - ereduak eta zerbitzuaren kudeaketa berrikusteko eskatu du. Halaber, mozioak onartutako finantzaketa berriarekin ez dela zerbitzuen finantza - nahikotasunera iristen adierazten du, moduluen kostuak ez direlako errealak, eta udalek beren gain hartzen dituztela langileen bajak eta antzinatasun - sariei dagozkien gastuak, bai eta errefortzu - kontratazioei dagozkienak ere.

Irurtzungo Udalak honako puntuak dituen mozioarekin bat egitea proposatzen da:

1.- Irurtzungo Udalak 0-3 Plataformaren aldarrikapenak babesten ditu, eta 0-3a kalitatera, unibertsaltasunera, doakotasunera eta lan-baldintzen hobekuntzara bideratutako hezkuntza-ziklo duin bat bihurtzearen alde egiten du.

2.- Irurtzungo Udalak NUKF-n ekimena babesten du, eta udalekin, Nafarroako Gobernuarekin, sindikatuekin, Nafarroako Parlamentuan ordezkatutako taldeekin eta 0-3 plataformarekin lan-mahai bat sortzeko eskatzen du, zikloa hobetzeko ekarpenak egiteko konpromiso aktiboa hartuz.

3.- Irurtzungo Udalak Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio moduluen kalkulua kostu errealera egokitzeko, udalek beren gain hartu behar duten zenbatekoa orekatzeko eta finantzaketa-sistema egokia eta egonkorra bermatzeko, eskumena erabat argitzea erabakitzen den bitartean.

4.- Irurtzungo Udalak Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio hezkuntza-ziklo horren inguruan

***Municipal de EH Bildu.***

*El Alcalde indica que se trata de una moción preparada por la Plataforma 0-3, reflejando la situación en la que se encuentra el ciclo. Así, la plataforma solicita que se haga una revisión de los modelos de financiación, así como de la gestión del servicio, indicando, asimismo, que con la nueva financiación aprobada no se llega a la suficiencia financiera de los servicios, y que los costes de los módulos no son los reales, soportando los ayuntamientos los gastos relativos a las bajas y premios de antigüedad del personal, así como a las contrataciones de refuerzo.*

*Se propone que el Ayuntamiento de Irurtzun se adhiera a los siguientes puntos de la moción:*

*1.- El Ayuntamiento de Irurtzun apoya las reivindicaciones de la Plataforma 0-3 y apuesta por la dignificación del ciclo 0-3 como ciclo educativo que vaya encaminada a la calidad, universalidad, gratuidad y mejora de las condiciones laborales de este ciclo.*

*2.- El Ayuntamiento de Irurtzun apoya la iniciativa de la FNMC e insta a la creación de una Mesa de Trabajo con Ayuntamientos, Gobierno de Navarra, sindicatos, grupos representados en el Parlamento de Navarra y la Plataforma 0-3, comprometiéndose activamente a realizar sus aportaciones para la mejora del ciclo.*

*3.- El Ayuntamiento de Irurtzun insta al Departamento de Educación a reajustar el cálculo de los módulos al coste real para equilibrar la cuantía que deben asumir los ayuntamientos y garantizar un sistema de financiación adecuado y estable mientras se determina la total clarificación de la competencia.*

*4.- El Ayuntamiento de Irurtzun insta al Departamento de Educación a cumplir en tiempo y forma todos los*

sinatutako akordio guztiak garaiz eta behar bezala betetzeko.

Mozioa eztabaidagai jarrita, ez da hitzik hartu eta, beraz, zuzenean bozkatu da. Irurtzungo Udalak, EH Bilduko zinegotzien aldeko zazpi botoekin eta Navarra Sumako zinegotziaren abstentzioarekin, honako hau erabaki du:

LEHENENGOA.- EH Bilduren udal taldeak 0-3 hezkuntza zikloari buruz proposatutako mozioa onartzea.

BIGARRENA.- Ekimen honen sustatzaileei honako akordioaren berri ematea.

*acuerdos suscritos en relación a este ciclo educativo.*

*Sometida la moción a debate, no ha habido tomas de palabra, por lo que se ha procedido directamente a votación. El Ayuntamiento de Irurtzun, con los siete votos a favor de los y las ediles de EH Bildu y la abstención del edil de Navarra Suma, acuerda:*

*PRIMERO.- Aprobar la moción acerca del ciclo educativo 0-3, propuesta por el grupo municipal de EH Bildu.*

*SEGUNDO.- Dar traslado de esta decisión a las personas promotoras de esta iniciativa.*

**11.- Erregu eta galderak.**

Ez da egon.

***11.- Ruegos y Preguntas.***

*No los ha habido.*

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez eta iluntzeko 19:50ak direnean, Presidenteak bilera amaitutzat eman du, eta nik, Idazkari naizen aldetik, akta hau jaso eta ZIURTATZEN DUT.

*Y no habiendo más temas que tratar y siendo las 19:50 horas, el Presidente levanta la sesión, de la que extiendo el presente Acta que, como Secretaria, CERTIFICO.*

33440403J AITOR LARRAZA (R: P3190400F)
Firmado digitalmente por 33440403J AITOR LARRAZA (R: P3190400F)
Fecha: 2022.07.29 20:09:07 +02'00'

Alkatea / *El Alcalde*,
Aitor Larraza Carrera

44635243V EGUZKIÑE AIESA (R: P3190400F)
Firmado digitalmente por 44635243V EGUZKIÑE AIESA (R: P3190400F)
Fecha: 2022.07.29 15:11:07 +02'00'

ZIURTATZEN DUT
Idazkaria / *La Secretaria*
Eguzkiñe Aiesa Andres